

XEDAPENA, OSATEK-EKO ZUZENDARI GERENTEARENA, IDAZKARI KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ HAUTAKETA-PROZESUKO EPAIMAHAIA ALDATZEN DUENA.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapenaren bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, OSATEKen aldi baterako enplegurako deialdi bereziaren bidez, oposizio-lehiaketaren bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko azaroaren 30eko xedapenaren bidez, onartu egin ziren idazkariaren kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak.

OSATEKeko zuzendari kudeatzailearen 2023ko urriaren 2ko xedapenaren bidez, hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatu zen, oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratudun langile finko izateko, idazkariaren kategorian.

Horregatik, ematen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Bat.- Idazkari kategorian lan-kontratuko langile finko izateko lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa-prozesuko epaimahaiaren osaera aldatzea, kideetako batek parte ez hartzeko arrazoia duelako, lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesuko oinarri orokorren 12. oinarriaren d) idatz-zatian ezarritakoaren arabera, OSATEKen aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi bereziaren bidez.

Bi.- Epaimahaia

Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia:

Presidentea: Edurne Añorga Capa.

Kideak: Ana Miranda Aberasturi.

Lourdes Vicario Llano.

Cristina Nuñez Ganuza.

idazkaria: Irene Muñoz Moreno.

Hiru.- Gauzatzea.

Sinatzen den egunean jarriko da indarrean xedapen hau. Jakinaraz bekie interesdunei.

Lau.- Argitalpena

Xedapen hori OSATEKen webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/2022ko-enplegu-eskaintza/webosk00-otkcon/eu/>) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da.